



BID-REX
Interreg Europe



European Union
European Regional
Development Fund

BID-REX Euskadi

Irizpideen gida eta Ekintza Plana



Eskualde Mailako 4. Partaidetza Tailerra Eragileekin

2018ko azaroaren 20a eta 21a

Ekoetxea Txingudi - Gipuzkoa

Edukia

JASOTAKO EKARPEN NAGUSIAK	6
EKINTZA-PLANA	6
EKINTZA-PLANAREN HELBURUAK	6
1) INFORMAZIO-SISTEMA	7
2) EZAGUTZA-SAREA	8
3) EZAGUTZA ADITUA SORTZEA ETA TXERTATZEA	10
4) FINANTZAKETA PUBLIKORAKO IRIZPIDEAK	12
5) HERRITARREN ZIENTZIA	14
EKINTZA-PLANEKO EKINTZAK GARATZEKO ORDUAN KONTUAN IZAN BEHARREKO ELEMENTUAK	17
IRIZPIDEEN GIDA	20
GIDAREN HELBURUAK – ABIAPUNTUA	20
GIDAN TXERTATZEKO OINARRIZKO PRINTZIPIOAK	22
BAINA NOLA ARTIKULA DAITEZKE IRIZPIDE HORIEK?	28

BID-REX EUSKADI

PROZESUA


Erakunde eta ekimen askok, beren ekarpenekin, biodibertsitateari eta ekosistemak mantentzeko zerbitzuen inguruko zientzia informazio eta ezagutzen sorrerari laguntzen diote; informazio hori guztia funtsezkoa da erabakiak hartu, arauak garatu eta etorkizuneko estrategia politikoak zehazteko.

Halere, egun ez dago informazio hori guztia bildu, laburbildu eta aztertzeko gai den eta erabakiak hartzea erraztuko lukeen onartutako eta egiaztatutako mekanismorik.

Egoera horri aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila BID-REX Europako proiektuan inplikatu da, **biodibertsitateari eta ekosistemen zerbitzuei buruzko interfaze zientifikopolitiko indartzeko xedearekin, biodibertsitate biologikoaren babesa eta erabilera iraunkorra, gizakion ongizatea eta garapen iraunkorra sustatzeko.**

PROIEKTUA

BID-REX Interreg Europe programak finantzatu duen proiektu europar bat da. 5 urteko iraupena du (2016ko apirila – 2021eko martxoa) eta helburu bikoitza dauka:



Eusko Jaurlaritzarekin batera Europako beste 6 eskualdek hartzen dute parte (Katalunia, Nolfork konderria – Erresuma Batua, Marche eskualdea – Italia, Ljubljana Marsh – Eslovenia, Iparraldeko Lautada Nagusiko eskualdea – Hungaria eta Valoina – Belgika).

Ikaste partekatuko prozesu hau ondorengo emaitzak lortzera bideratua dago:

Lehentasunak hobetzea biodibertsitatearen arloko kontserbazio-ahaleginari dagokionean, biodibertsitatearen eta ingurumenaren inguruan eskuragarri dauden datuetan oinarrituriko metodoak erabiliz

Gida bat. Europako natura-ondareari babesteko esfortzuei emaniko funtsen eragina handitu ahal izateko biodibertsitateari buruzko datuak nola bildu eta erabili beharko genituzkeen azalduko du.

Eskualdeen arteko trukearen ondorioz, inplikaturiko eragileek eta kideek **biodibertsitatearen inguruko datuak kudeatzeko beren gaitasunak hobetuko dituzte**

PARTE HARTZEKO SAIOA: DISEINUA ETA EDUKIAK

Dokumentu honetan Ekoetxea Txingudin (Irun-Gipuzkoa) 2018ko azaroaren 20 eta 21ean egin zen **eskualde mailako laugarren tailer partizipatiboan** bildutako ekarpen nagusien laburpena biltzen da. Tailer horretan 37 pertsonak hartu zuten parte.

Tailerra Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak antolatu zuen, 2018ko Biodibertsitaari buruzko Euskadiko Foru Sozialaren esparruan, Innobasque erakundearen laguntzarekin. Tailerra Europan egiten ari den prozesuarekin batera 2017ko otsailean eskualde mailan hasitako prozesuari jarraipena emateko egin zen.



SAIOAREN IKUSPEGIA

Aurrez egin diren eskualde mailako tailerrak erabakiak hartzeko informazio-premietan (alderdi sendoak eta ahultasunak, jasotzen den informazioaren egokitasuna eta abar) eta informazio-fluxuen hobekuntzan oinarritu ziren, eta laugarren topaketa hau bi helburu hauekin diseinatu zen:

Gidan txertatu beharreko irizpideak adostea eta lehenestea, proiektuak identifikatzeko eta lehenesteko

Ekintza Plana alderatzea eta aberastea

Saioetan jorratutako txostenetako nahiz dinamika parte-hartzaileetako eduki nagusiak eta material lagungarriak honako esteka honetan daude eskura:

<http://www.euskadi.eus/ekitaldia/biodibertsitateari-buruzko-euskadiko-foro-soziala-2018/web01-a2ingdib/eu/>

Jarraian, bi jardunaldietan egindako tailerretan jasotako **ekarpenen xehetasun-txosten egituratu** bat aurkezten da.


JASOTAKO EKARPEN NAGUSIAK

EKINTZA-PLANA

EKINTZA-PLANAREN HELBURUAK

BID-REX proiektuaren esparruan, parte hartzen duen eskualde bakoitzak **ikaskuntza-esperientzian** eta ikasitako guztian **oinarritutako Ekintza Plan bat** osatu behar du, **eskualde bakoitzean jorratutako erreminta politikoa hobetzeko helburuarekin.**

Tailerrean izan diren pertsonen ustez, Euskadiren kasuan, Ekintza Plan horrek erabilgarria izan beharko luke honako hauetarako ere:




Euskadirako Ekintza Planak 5 ardatz planteatzen ditu hurrengo bi urte hauetarako lanaren oinarri gisa:

- 1) **Naturari buruzko Informazio-sistema**
- 2) **Ezagutza-sarea**
- 3) **Ezagutza aditua sortzea eta txertatzea**
- 4) **Finantzaketa publikorako irizpideak**
- 5) **Herritarren zientzia**

Ekarpenak egin ahal izateko testuingurua eskainiko duen hasierako diagnostiko bat abiapuntutzat hartuta, **tailerrean parte hartu zuten pertsonek hura hedatzeko elementu kritikoak identifikatu ahal izan zituzten:** hura ezartzeko aukera-uneak eta arriskuak.

Jarraian, abiapuntuaren eta jasotako ekarpenen laburpen egituratu bat aurkezten da:


1) INFORMAZIO-SISTEMA




Ardatz hori ez zen zehatz-mehatz jorratu dinamika parte-hartzailean, baina abiapuntuko diagnostikoa eta hura eguneratzeko eta garatzeko ezarri beharko liratekeen ekintzak partekatu ziren.

Gaur egungo informazio-sistema 2006an hasi ziren garatzen, eta 2010ean aurkeztu zen. Diseinu kontzeptual eta funtzional egokia izan arren, gaur egun haren kalitatea hobe dezaketen aurrerapen teknologikoak eta plataformak daude.

Haren hasierako diseinua arkitektura sendo batean oinarritu zen eta hainbat funtzionalitate hornitu zizkion sistemari, baina helburua ez zen sistemako eragileen arteko elkarlana erraztu eta sustatuko zuen plataforma bat sortzea. **Moduluen bitartez, hura arkitektura modernoago batera migratzea proposatzen da, konektatzea eta datuak sistemara atxikitzea errazagoa izan dadin, eta prozesu automatizatuagoak susta daitezten. Modu positiboan baloratu da sistema partekatu bat lortzeko helburuarekin aurrera egitea.**




2) EZAGUTZA-SAREA



Ezagutza-sarearen helburua da gobernantza hobetzea eta dibertsitatea babesteko lan egiten duten eragile publikoak eta pribatuak elkarrekin **konektatzea**.


Horrela, bada, honako hau txertatu da Lege Aurreproiektuan: batzorde adituez gain, **beharrezkoa da lankidetzaz-sare bat garatzea, bertan, ezagutza irekia sortu eta informazioa alderatu eta balioztatu dadin. Sare horrek azpiegitura teknologiko aurreratua eta konektatua osatu behar du.**

Ikuspegi komun eta partekatu bat lortzeko helburuarekin aurrera egiteko (biodibertsitatea ezagutzeko itun bat garatuz, adibidez), **rol aktiboago bat eta baterako erantzukizun-esparru bat** izan behar dira (parte hartzen duten eragileen erantzukizunpeko adierazpen bat jaso behar da bertan).



Tailer parte-hartzaileko ondorioak kontuan hartuta, hura **ezinbesteko ardatz bat** dela ondorioztatu da **epe luzerako lankidetzaren eredu publiko eta sozial bat** garatzen eta zehazten joateko, baina baita administrazio publikoen arteko **lankidetzaren hobetzeko** ere.

Sareak **gizarte-inplikazioa trakzionatzeko** eta **balio publikoa** sortzeko erreminta bat izan behar du, baina, horretarako, funtsezko eragileen inplikazioa sustatu beharko da hasieratik; beraz, **komunikazioa** ezinbesteko elementu bat izango da. Horrez gain, sarearen eginkizuna sustatuko duen eta hari barne-koherentzia emango dion **administrazioen arteko koordinazio-nukleo** bat beharko da.



ERRONKAK


- Administrazioen arteko koordinazioa, nukleo gisa
- Komunikazioa – eragileei egokitutako barneko eta kanpoko komunikazio-plana (sareko balioa eta sarera atxikipena)
- Funtsezko eragileen inplikazioa: teknologia-zentroak, unibertsitateak

PRINTZPIOAK


- Lankidetzaren eta koordinazioa
- Trakzioa
- Inplikazioa
- Balio publikoa

Azkenik, ezagutza-sarea **agerleku dinamiko baten gisa artikulatu** behar da, bertan parte hartuko duten eragileen **komunikazioa, gaitasuna eta baterako sorkuntza** ahalbidetuz.


Nola artikulatu ezagutza-sare bat?



3) EZAGUTZA ADITUA SORTZEA ETA TXERTATZEA



Ezagutza txertatzeak esan nahi du, batetik, **biodibertsitatearen esparruan sortzen den ezagutza balio-kate baten gisa ulertzea**. Bertan, maila bakoitzak du bere balioa, baina balio hori handitu egiten da gainerakoekin konektatzean, eta horrek **sistemaren efikazia areagotzen du** eta **ikerketaren eta kudeaketaren artean dagoen etena gainditzen du**.




Bestalde, **biodibertsitatearen alorreko ezagutza beste esparru eta diziplina batzuekin (teknologikoak, sozioekonomikoak eta abar) konektatzean, hura are gehiago ikusten da.**

Gaur egungo gizartean naturarekiko deskonexio handia dago eta horren jakitun izan behar dugu; horregatik, ezinbestekoa da **biodibertsitateari buruzko jakintza beste ezagutza-eremu batzuekin konektatzea (gobernu irekia, gizarte-berrikuntza eta abar).**

Era berean, ezinbestekoa da **biodibertsitatearen kontserbazioan berrikuntza teknologikoa aplikatzea (IKT, Big Data eta abar), datuak errazago jasotzeko eta, ekintzen jarraipenaz haratago, benetako ebaluazioa sustatzeko, horrek adierazleen kausalitateak eta garrantzia aztertzea ahalbidetuko baitigu.**



Horrenbestez, behar-beharrezkoa da biodibertsitatea babesteko **sistemaren mailen eta engranajeen garrantzia ikusgarri bihurtzeko espazio eta lengoia komunak aurkitzea eta integrazioan elkartzeko jarraibideak adostea.**




ERRONKAK

- Lengoia komunak aurkitzea
- Ikerketaren eta kudeaketaren arteko etena
- Lehentasanak finkatzeko metodo berriak garatzea

PRINTZPIOAK

- Berrikuntza
- Konexioa
- Espazio partekatuak


4) FINANTZAKETA PUBLIKORAKO IRIZPIDEAK



Momentuz, dirulaguntzen (enpresei eta GKEei), hitzarmenen (Aranzadi eta Unibertsitatea) eta kontratazioen (gehienetan, kontratu txikiak, sektoreko eragileen atomizazioa dela eta) esparruan lan egin da. Kontratuen lege berriak zailtasunak sortu ditu hornitzaile txikiekin kontratuak egiteko orduan eta, beraz, orain are garrantzitsuagoa da **joko-arauak arautu eta irizpideak ezarriko dituen esparru egonkor** bat izatea, honako hauek egin ahal izateko:

- **Informazioa lortzeaz gain, natura kontserbatzearen kultura sustatzea**
- **Emaitzen ebaluazio eraginkor bat egitea**

Eragileen partaidetza sustatzea irizpide horien ezarpenean (gida batean jasoko dira); horrek iradokizunak txertatzea ahalbidetzen du, baita esparru hori alderatzea eta hari **izaera partekatua ematea** ere. Horien lotura eta partaidetza oso garrantzitsuak dira, eta **ez finantzaketa-irizpideak ezartzeko bakarrik**, baizik eta **lehentasunak finkatzeko orduan erakunde publikoei laguntzeko** ere.




ERRONKAK

- Proiektuetan kalitatezko irizpideak sustatzea
- Biodibertsitatea babestearen kultura sustatzea
- Printzipioak eta irizpideak ebaluatzea - egokitzea


PRINTZIPIOAK

- Partaidetza
- Lehentasun partekatua
- Gardentasuna eta kontuak ematea

GIDA erreminta erabilgarria eta moldakorra izan behar da sistema osatzen duten eragile publikoentzat eta pribatuentzat, haren diseinuari nahiz hedapenari dagokienez:




5) HERRITARREN ZIENTZIA



Herritarren zientzia errealitate bat da dagoeneko eta, **sistemari informazio baliagarria eskaintzeaz gain, biodibertsitatearen eta hura balioan jartzearen inguruko galdera berriak egiten lagun dezake**. Testuinguru horretan, oso garrantzitsua da datu zientifikoaren kalitatea bermatzea, eta horiek politiketan eta araudian zehaztutako helburuetara egokitzea.

Horretarako, **kontserbazio-helburuetara egokiro bideratutako jarraipen-programak diseinatu** behar dira, baita **protokolo zehatz baina erabilgarriak** ere; baina, batez ere, **milaka pertsona boluntario** egiten duten ahaleginak bideratuta egon behar du ingurumena kontserbatzeko eta **babesteko eta baliabideen eraginkortasuna sustatzeko helburuetara**. Hau da, **ustekabeko oharretatik gidatutako oharretara igarotzeko** beharrezko diren urratsak eman behar ditugu.

Horretarako, ezinbestekoa da **ondo prestatutako boluntarioak izatea**, eta hori **trebakuntza-erakundeen egiaztatze-sistema** baten barnean txertatu behar da. Zentzu horretan, erreferentziako jardunbide bat da *Volunteer Training Pathway*, Ingalaterrako Norfolk eskualdean erabiltzen dutena.






FSC BioLinks Development Plan for Training Provision

© Field Studies Council

Herritarren zientziak kalitatearen eta kantitatearen faktoreak hartu behar ditu barne, geografiaren aldagaia (datuak behar diren lekuan hedatzea) eta kontserbazio-premiak (jasotako daturik gabeko espezieen inguruan) txertatuz. Gainera, herritarren zientzia ez da naturaren kontserbazioarekin konprometitu dauden herritarrengana gerturatzeko estrategia bat bakarrik. Izan ere, hurbilketa erabilgarri bat izan daiteke sistemari datuak eskain diezazkioketen beste eragile batzuegana iristeko (adibidez: mendi-klubak, ehiza-federazioak, arrantzaleak, nekazariak...).



ERRONKAK

- Nola balioztatu datuen kalitatea
- Botila-lepoa – egiaztatzaileak
- Helburuen kudeaketa



PRINTZIPIOAK

- Boluntarioritza sustatzea
- Orientazioak ematea (zer eta non)
- Kalitatea eta kantitatea

Desmobilizazio sozialeko agertoki baten aurrean...

Nola erakarri pertsona gehiago?

Motibazioa eta jabetza-sentimendua sustatuz, **komunitatea eginez**. Ezinbestekoa da **kontaketan asmatzea**, hau da, egiten denaren balio soziala ondo kontatzea. Era berean, **jarraipen-programak edo prestakuntza-irteerak** diseina daitezke **tokiko beste eragile batzuekin elkarlanean**.

Gainera, oso garrantzitsua da **beren ezagutzak eta denbora norbere borondatez eskaintzen dituzten pertsonak ez desmobilizatzea, eta horiek zaindu eta artatzea**. Horretarako, **itxaropenak kudeatu eta horiei erantzun** behar zaie (espezie inbaditzaileen edo problematikoen kasuan, adibidez, administrazioak zergatik jarduten ez duen azaltzea, pertsona batek leku jakin batean horrelakoak daudela jakinarazi arren). **Herritarrek informazioa ematen dutenean administrazioak ez badu kudeaketarik edo erantzunik ematen, konfiantza guztiz eteten da eta oso zaila da hura berreskuratzea**.

Gero eta zaharragoa den profil demografiko baten aurrean...

Nola bermatu belaunaldien arteko erreleboa?

Zalantzarik gabe, **hurrekin eta gazteekin lan egiten duten ikastetxeak eta hezkuntza-eragileak ezinbestekoak dira belaunaldi berriak kontzientziatzeko eta horien partaidetza sustatzeko**. Hainbat ekintza garatzen dira naturaren babesa ikastetxeetara hurbiltzeko, eta hezkuntza-jarduera irekiak antolatzen dituzten Ekoetxeen sare bat dago. Edozein kasutan, **adineko pertsonak (erretiratuak batez ere) eragile garrantzitsua izan daitezke, eta esparru horretan oso garrantzitsuak izan daitezkeen denbora eta mugikortasun baliagarriak eskain ditzakete**.

Ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzeko agertoki baten aurrean...

Nola garatu balioztatze-prozesu banatu bat?

Zentzu horretan, **balioztatze-prozesu bat diseinatu eta ezarri** beharra aipatu da, **datuak balioztatzeko balio duen modu berean, konfiantza sortuko baitu** (sisteman parte hartzen duten pertsonen eta administrazio publikoaren sistemarekiko konfiantza). Prozesu hori gaur egun dauden plataformetan aplikatu ahal izango da.

Prestakuntza mailaren arabera, kategoriak ematea proposatu da. Bertan, datua fidagarriagoa izango da maila handiagoa bada eta, beraz, lehentasunezko leku bat esleituko zaio sisteman ikus daitezkeen datuen multzoan. Era berean, **datu baten eta oharren kalitateari buruzko oharrak egiteko** aukera eskaini ahal izango litzateke, **horiek kudeaketan erabili eta aplikatzeko**.

Dena den, **plataforma guztiek ez dituzte datu fidagarriak jasotzen** (edo ez hemen bezain fidagarriak) eta, beraz, interesgarria izan daiteke, **abiapuntu gisa, plataformak egiaztatzeko eta ziurtatzeko sistema bat izatea**. Horrez gain, **herritarren zientziari dagokion mundua arrazionalizatu behar da biodibertsitatearen esparruan** (plataforma, aplikazio... gehiegi daude).

EKINTZA-PLANEKO EKINTZAK GARATZEKO ORDUAN KONTUAN IZAN BEHARREKO ELEMENTUAK

ARDATZAK	ELEMENTURIK GARRANTZITSUENAK
INFORMAZIO-SISTEMA	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Moduluen bitartez, arkitektura modernoago batera migratzea. ➤ Sistemara konektatzeko eta datuak txertatzeko erraza izan dadila. ➤ Prozesu automatizatuagoak sustatzea.
EZAGUTZA-SAREA	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ikuspegi komun eta partekatua izango duen sistema bat lortzeko helburuarekin aurrera egitea. ➤ Elkarlanean aritzeko sare bat garatzea, ezagutza irekia sortzeko eta informazioa alderatu eta balioztatzeko. ➤ Epe luzerako lankidetzaren eredu publiko eta sozial bat sustatzea: administrazioen arteko koordinazio-nukleoa, administrazioen arteko koordinazioa hobetzea, gizartearen inplikazioa trakzionatzea eta balio publikoa sortzea. ➤ Komunikazioa funtsezko elementu gisa jorratzea. ➤ Eragileen komunikazioa, gaikuntza eta baterako sorkuntza ahalbidetuko dituen agertoki dinamiko baten gisa artikulatzea.
EZAGUTZA ADITUA TXERTATZEA	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Biodibertsitatearen esparruko ezagutzaren sorkuntza sistemaren eraginkortasunean lagunduko duen balio-kate baten gisa ulertzea. ➤ Ikerketaren eta kudeaketaren arteko etena gaituz. ➤ Biodibertsitatearen alorreko ezagutza beste esparru eta diziplina batzuekin (teknologikoak, sozioekonomikoak eta abar) konektatzean, hura are gehiago ikusten da. ➤ Biodibertsitatearen inguruko ezagutza beste ezagutza-eremu batzuekin konektatzea (gobernu irekia, gizarte-berrikuntza eta abar). ➤ Biodibertsitatearen kontserbazioan berrikuntza teknologikoa aplikatzea (IKT, Big Data eta abar), hala, datuak errazago biltzeko eta benetako ebaluazioa sustatzeko. ➤ Sistemaren mailek eta engranajeek duten garrantzia ikusgarri egiteko espazio eta lengoia komunak aurkitzea. ➤ Integrazioan elkartzeko jarraibideak adostea.
FINANTZAKETA PUBLIKORAKO IRIZPIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Joko-arauak arautuko dituen eta irizpideak ezarriko dituen esparru egonkor bat zehaztea. ➤ Informazioa lortzeaz gain, natura kontserbatzearen kultura sustatzea.


ARDATZAK	ELEMENTURIK GARRANTZITSUENAK
	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Emaizten ebaluazio eraginkor bat egitea. ➤ Irizpide horiek finkatzeko orduan, eragileen partaidetza sustatzea. ➤ Izaera partekatua ematea. ➤ Finantzaketa-irizpideak ezartzeaz gain, erakunde publikoei lehentasunak fintzeko orduan lagundu ahal izateko.
HERRITARREN ZIENTZIA	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Biodibertsitatearen eta hura balioan jartzearen inguruko galdera berriak egin daitezen laguntzea. ➤ Ustekabeko oharretatik gidatutako oharretara igarotzea. ➤ Kontserbazio-helburuetara behar bezala bideratutako jarraipen-programak diseinatzea, protokolo zehatz baina erabilgarriak erabiliz. ➤ Ondo prestatutako boluntarioak izatea. ➤ Trebakuntza-erakundeen egiaztatze-sistema. ➤ Kalitatearen eta kantitatearen faktoreak jasotzea barne hartzea, geografiaren aldagaia eta kontserbazio-premiak txertatuz. ➤ Ez da naturaren kontserbazioarekin konprometitu dauden herritarrengana gerturatzeko estrategia bat bakarrik. Era berean, hurbilketa erabilgarri bat izan daiteke sistemari datuak eskain diezazkioketen beste eragile batzuegana iristeko. ➤ Komunitatea eginez. ➤ Jarraipen-programak edo prestakuntza-irteerak, tokiko beste eragile batzuekin elkarlanean. ➤ Beren ezagutzak eta denbora norbere borondatez eskaintzen dituzten pertsonak ez desmobilizatzea, eta horiek zaindu eta artatzea. ➤ Herritarrek informazioa ematen dutenean administrazioak ez badu kudeaketarik edo erantzunik ematen, konfiantza guztiz eteten da eta oso zaila da hura berreskuratzea. ➤ Hurrekin eta gazteekin lan egiten duten ikastetxeak eta hezkuntza-eragileak ezinbestekoak dira belaunaldi berriak kontzientziatzeko eta horien partaidetza sustatzeko. ➤ Adineko pertsonak (erretiratuak batez ere) eragile garrantzitsua izan daitezke, eta esparru horretan oso garrantzitsuak izan daitezkeen denbora eta mugikortasun baliagarriak eskain ditzakete. ➤ Balioztatze-prozesu bat diseinatzea eta ezartzea, datuak balioztatzeaz gain,

ARDATZAK	ELEMENTURIK GARRANTZITSUENAK
	konfiantza sor dezan.
	➤ Prestakuntza mailaren arabera, kategoriak esleitzea.
	➤ Abiapuntu gisa, plataformak egiaztatze eta ziurtatzeko sistema bat izatea.
	➤ Herritarren zientziari dagokion mundua biodibertsitatearen esparruan arrazionalizatzea.

IRIZPIDEEN GIDA

GIDAREN HELBURUAK – ABIAPUNTUA

Ekintza Planean jaso den moduan, ezinbestekoa da **irizpideen gida partekatu bat izatea, honako hauek egin ahal izateko:**



Proiektuak garatuko dituzten **tokiko eragileak** eta **administrazio publikoak** izango dira, **azkenean, diseinuaren partaideak eta gidaren hartzaiak**. Administrazio publikoen kasuan, **proiektuak lehenesteko, funtsak esleitzeko eta finantzatutako ekintzek eragindako inpaktuaren jarraipena egiteko** balioko die gidak. Tokiko eragileentzat, berriz, oso **erreminta erabilgarria izango da Euskadiko biodibertsitatearen inguruko ezagutza hobetuko duten proiektuak diseinatzeke eta ezartzeko.**



- 1 Proiektuak lehenestea
- 2 Funtsak esleitzea
- 3 Finantzatutako jardueren jarraipena egitea
- 4 Proiektu berriak diseinatzea eta ezartzea

Irizpideak eraikitzeko prozesu honetan, GBIO esparruak aukera ezin hobea eskaintzen du alderdi interesdun guztien arteko ahaleginak lerrokatzeko eta, hala, biodibertsitatearen ulermen integratua ahalbidetzeko.

GBIOk lau eremu nagusi identifikatzen ditu, zein bere oinarrizko osagaiekin, ahaleginak eta funtsak koordinatu ahal izateko. Egileak diziplina askotakoak dira, eta 2012an hitzartutakoaren arabera, ondokoak dira biodibertsitate-datuak **guztion onerako ustiatzeko estrategia globalaren funtsezko elementuak**.



Esparru hori Euskadin erabiltzeak aukera ematen digu indarrean dauden ekimenak areago koordinatzeko eta integratzeko, hasi lokaletik eta globalera bitartean.

Hura gidan txertatzeko, behar-beharrezkoa izango da **laugarren dimentsio bat txertatzea, erabakiak hartzeari buruzkoa; hark zaintzaren, ebaluazioaren eta informazioaren esparru integratu bat ezartzea** ahalbidetuko digu narriadura naturala, biodibertsitatearen galera eta zerbitzu ekosistemikoen degradazioa eteten lagunduko duten **politiken exekuzio-mailari** dagokionez.

**ERABAKIAK
HARTZEA**

Biodibertsitatea galtzearen aurkako politiken emaitzak hobetzea, ezagutza erabilgarri onena erabilia.

Irizpide horiek lantzeko, lau fasez osaturiko metodologia bat eta dinamika bat diseinatu ziren, jarraian xehatzen direnak. Hurrengo orrietan jasotako ekarpenak ez dira aurkeztu landu ziren ordena berean:

- 1) 3 kasu praktiko abiapuntu gisa hartuta, datuen eta dibertsitatearen esparruko politika publikoen diseinuaren arteko harremana eta fluxua optimizatzeko irizpideetan lan egitea.
- 2) Irizpide horiek GBIO esparruan sailkatzea
- 3) Aldez aurretiko hausnarketan oinarrituz, Gidan txertatu beharreko GBIO irizpideak lehenestea
- 4) Erabakiak hartzeko irizpideek duten dimentsioa alderatzea eta lehenestea.


GIDAN TXERTATZEKO OINARRIZKO PRINTZIBIOAK

Tailerrean parte hartu duten pertsonen ustez, gidako irizpideek **prozesuaren ikuspegi eskalatua** izan behar dute, kulturekin hasi eta erabakiak hartzearekin amaitzen dena. Era berean, **epe laburra eta epe luzea konbinatu eta artikulatu behar dira horiek hautatzean eta lehenestean.**


Horretarako, pertsona parte-hartzaileek GBIOko 4 blokeetan banakatutako irizpideen matrize osoa hartu zuten kontuan, baita erabakiak hartzearekin lotutako beste bat ere (ikus diagrama)



GBIO FRAMEWORK



Tailerretan parte hartu dutenek honako irizpide hauek lehenetsi dituzte Gida sostengatzeko oinarri gisa:



Irizpideen arteko mendekotasuna nabarmentzeaz gain, **datuei eta kulturaren sorkuntzari dagozkien dimentsioak dira presentzia gehien dutenak** informazioaren eta fluxuen inguruan eta erabakiak hartzeko beharrezkoak diren prozesuen inguruan hausnartzen denean. **Bestalde, ulermena eta ebidentzia dira esparru logiko horretan jorratzea gehien kostatzen diren dimentsioak.**

ERABAKIAK HARTZEA	 Babes-esparruak	 Lehentasunak, helburuak, neurriak	 Adierazleak	 Informazioan konfiantza izatea	 Ezagutza integratua
ULERMENA	 Eskala anitzeko modelatze espaziala	 Joerak eta iragarpenak	 Sistema biologikoen modelaketak	 Irudikatzea eta zabaltzea	 Datu berrien bilketa lehenestea
EBIDENTZIA	 Erabilgarritasun a eta oharrak	 Taxonomia-esparrua	 Behaketei buruzko integratutako datuak	 Espezien ezaugarriei buruzko erantsitako datuak	 Ezagutza ulerkorra
DATUAK	 Argitalpenak	 Bildumak eta aleak	 Landako datuak jasotzea	 Sekuentziak eta genomak	 Urruneko eta automatizatutako behaketak
KULTURA	 Sarbide ireki eta berrerabiltzearen kultura	 Daturen estandarrak	 Epe luzeko biltegitratzea eta artxibatzea	 Sustapen politikoak	 Ezagutza-sarea

Edonola ere, honako hauek dira lehenespenerako erabili diren argudio nagusiak:

Kultura

 Sarbide ireki eta berrerabiltzearen kultura	 Daturen estandarrak	 Epe luzeko biltegitratzea eta artxibatzea	 Sustapen politikoak	 Ezagutza-sarea
--	--	--	---	---

- Sarbide irekiaren eta berrerabilpenaren estandarrak eta kultura elkarrekin lotuta dauden aldagai gisa erabili behar dira.
- Erdiko zatia **datu-base estandarizatu bat** da, baina haren ezaugarriak kulturaren araberakoak izango dira (jatorria komunitate adituarengan nahiz herritarren zientzian izan).

- Irizpide horiek **abiapuntu on bati** (beharrezkoa, baina ez nahikoa) egiten diote erreferentzia, eta horietan eginkizun bizkortzailea izan dezakete **pizgarriek** (epe luzera).
- **Metodologia eta protokolo komunek**, ekintzen esparruan **epe motzera eta ertainera / epe luzera ezarritako helburuek** eta **kudeaketaren gardentasuna** funtsezkoak dira elkarlanean oinarritutako kultura ireki bat eraikitzeko.

Datuak



- **Landako datuen bilketa eta argitalpenak bereziki garrantzitsuak dira** apartatu honetan, horiek **modu irekian egiten** badira, **oinarri sendo baten gisa**.
- Edonola ere, parte-hartzaile batzuek azpimarratu dute, epe luzeagora, **ohartarazpen automatizatuekin eta urrunekoekin eta sekuentziekin eta genomekin lotutako irizpideak txertatu beharko direla**.
- Eremuen eta espezieen **diseinu esanguratsua**, informaziora eta bibliografiara **sarbidetua digitala eta sinplea**, eta **herritarren zientziara bideratutako aktibazioa**.

Ebidentzia




- Dimentsio honetan oso garrantzitsua da **komunitate aditua ahalduntzea**, hark informazioa administra dezan, denboran eta espazioan iraunkorrak izango diren ohartarazpenen bitartez ebidentziak sor daitezela, eta ezagutza hori integratu dadin.
- Horretarako ezinbestekoa da **prestatzea eta gaitzea, diziplina anitzeko lana eta koordinazioa sustatzea, eta proiektuen emaitzak eguneratzea eta horiei ikusgaitasuna ematea**.

Ulermena



- Ulermen egokia ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko, **patroiak ebaluatu** behar dira.
- Horrela, ikerkuntzaren alorreko ahaleginak areagotu behar dira, **jarduteko eta berriz diseinatzeko, eta datu berrien bilketa bideratzeko jarraibideak emango dizkigun ebaluazio bat eginez.**
- **Sentsibilizatzea, elkarlanean aritzea, jakitera ematea, balioa ematea eta babesguneak eta sareak testuinguruan jartzea...** Horiek dira biodibertsitatea babesteko orduan aurrera egiteko lehen urratsa.

Erabakiak hartzea



- Gainbeherako joera hori alderantzikatu nahi bada, **monitorizatzeaz gain, biodibertsitatea babesteko politikak eta planak zeharkakotasunez ezarri behar dira**, eta beste sail batzuek ere lehentasun horiek bereganatu beharko dituzte (industria, azpiegiturak, hezkuntza, hirigintza-plangintza...).
- Era berean, lehentasunak, helburuak eta neurriak zehazten ditugunean, **ekintzara eramaten dugu babes-esparrua**. Beti ez da beharrezkoa izango babestea eta, batzuetan, nahikoa izango da kudeatzea; **eta, kudeatzeko, ezinbestekoa da adierazleak izatea, konfiantza sortzea eta abar.**

BAINA NOLA ARTIKULA DAITEZKE IRIZPIDE HORIEK?

Irizpideen arteko lotura dela-eta, gida on batek ez ditu printzipioak bakarrik barne hartu behar; izan ere, **sareko lana egiteko moduak eta emaitzen eta inpaktuen ebaluazio partekatua jaso behar ditu.**

Dinamika parte-hartzailearen emaitza gisa, **hiru eraldaketa-plano** sailkatu dira, eta honako irizpide hauek txertatu eta ezarri beharko dituzte:

